

“Mikro”

Elkarrekin burutuko dugun sorkuntza honetan, eguneroko bizitzan topatu ditzakegun egoera zein jarrera matxistak azaleratuko ditugu zirkuko teknikatik abiatuz.

Generoa eta **Rolaren** erlazioak jo-puntutzat hartuta, **norbanako** bezala ditugun **izaerak deseraiki** nahi ditugu eraiki dugun hori zenbateraino kultura eta inguruko “baloreetan” oinarritzen den jabetu eta agerian uzteko.

Konturatzen ez garen arren, sarritan aurrez ezarritako **identitate hegemonikoak** inkontzienteki **onartuz hazi eta hezi** gara. Gaur egun ordea, **identitatea eraikitze**ko garaian, **informazioa** eta **lanketa pertsonala**(hainbat arlotakoa) oso garrantzitsuak direla badakigunez, lanketa hau lehenik guretzat eta bigarren ikusle goari eskaintzeko burutu nahi dugu, sorkuntza hasi aurretik azterketa eta dokumentazio lana egitearen helburua hau erraztea da.

Eszenaratzeko garaian, inor zehatza ez diren baina aldi berean ikusle etako edonor izan daitezkeen bi pertsona izatea da helburua baina aldi berean “gu”tik kontatzea, gure bizipenetatik alegia. Horretarako egunerokotasunean dauden egoeretatik abiatuko gara.